



LABV.2

LABORATORIO
SEGUNDA
VERSIÓN

DAMA, Bigarren Bertsioa Laborategiaren III. ediziorako deialdia egin du, 50 urtetik gorako sortzaileei zuzendutako ikus-entzunezko sorkuntzarako lehen laborategi nazionala.



PARTE HARTZEKO OINARRIAK

- Hautagaiek 50 urte edo gehiago izan behar dituzte eskaera aurkezten duten unean, eta Espainian bizi behar dute.
- Eskaerak banakakoak izango dira. Eskaera bakarra onartuko da hautagai bakoitzeko. Egilekideen kasuan, egile bakoitzak bakarkako eskaera egin beharko du, eta adinaren eta bizilekuaren baldintzak bete beharko ditu. Proiektuek bi egilekide izan ditzakete gehienez.
- Proiektuak ikus-entzunezko fikziozkoak izango dira film luzeetarako, sailetarako edo sail laburretarako.
- Espainiako edozein hizkuntza ofizialetan aurkez daitezke proiektuak.
- Aurkeztutako proposamenek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Ez da onartuko lehendik dauden lanen inolako egokitzapenik, ezta egileak edo egilekideak hautagaiak berak badira ere.
- Ez dira onartuko garatu eta/edo ekoiztu diren sinopsiak, ez eta ekoizpen edo aukera akordioen edo erabilgarritasuna nolabait mugatzen duten bestelako akordioen eraginpean daudenak ere. Era berean, ezin dira aurkeztu deialdi hau garatzen den bitartean beste sariketa edo lehiaketa batzuetara aurkeztu diren eta ebatzi gabe dauden proiektuak. Aitzitik, dagoeneko amaituta dauden lehiaketetan hautatu edo saritu ez diren proiektuak aurkez daitezke.




- **Proiektuak jasotzeko epea 2024ko urriaren 15tik azaroaren 15ra 11:00etan izango da.**
- DAMAren web orrian dagoen aplikazioaren bidez aurkeztuko dira eskaerak, eta ez da onartuko beste bide batzuetatik (ez posta elektronikoz, ez aurrez aurre) aurkeztutako eskaerarik.



AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Eskatzaileek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Artxibo bakarra PDF formatuan, honako hauek izango dituenak:
 - Proiektuaren sinopsia, trama eta gaia garatuko dituenak. Orrialde bat izango du.
 - Proiektuaren memoria zehatza, gehienez ere bi orrialde.
 - Egilearen motibazio gutuna, gehienez ere orrialde bat. Dokumentu horretan adierazi behar da proiektu honek bultzatutako aniztasuna justifikatzen duen ezaugarriren bat duen. (Ikusi balorazio irizpideen 3. puntua).
- Egilearen ibilbide profesionala, filmografia barne, gehienez ere orrialde bat.
- Identifikazio dokumentuaren fotokopia (NAN, pasaporte edo AIZ).



- Honako hau dioen adierazpena: proiektua aurkezten duen hautagaia aurkeztutako obraren egilea eta jabetza intelektualaren eskubide guztien titularra dela, eta obra hori jatorrizkoa dela eta ez dela lehendik dagoen beste baten egokitzapena. Zinpeko adierazpen horrek adieraziko du, halaber, obra ez dela aurkeztu irabazleak aukeratu gabe dituzten beste lehiaketa batzuetara, ez dagoela ekoizpen fasean eta ez dagoela obra aurrera eramateko inolako kontraturik.

Oharra: epaimahaiak ez du baloratuko aparteko dokumentaziorik, hala nola ikusizko erreferentziak, grafikoak, banaketa aipamenak eta abar.



ESKAERAK HAUTATZEA ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK

Ikus-entzunezkoen sektoreko egilek eta profesionalek osatuko dute epaimahaia, eta sexuaren arabera parekotasun irizpideen arabera aukeratuko dira. Sariaren erabakia hartu baino lehen jakinaraziko da haren osaera.

Epaimahaiak honako balorazio irizpide hauen arabera hautatuko ditu parte hartuko duten sei proiektuak:

- 1.** Proposamenaren sormen eta kultura kalitatea (60 puntu gehienez).
- 2.** Aurkeztutako proiektuaren erlazioa 2030 Agendan jasotako helburuetakoren batekin, honako hauek, besteak beste: genero eta etnia aniztasuna, belaunaldien artekoa, erlijio eta sexu aniztasuna; ingurumen jasangarritasuna eta erantzukizuna; kulturartekotasuna eta kultura aniztasuna; landa eremua, laguntza humanitarioa, desberdintasun sozialak murriztea, alkoholaren eta drogen kontsumoaren ikosentsibilizazioa eta sare sozialen erabilera (20 puntu gehienez).
- 3.** Laborategian aukeratutako artean aniztasuna sustatuko da. Alde horretatik, 60 urtetik gorako emakumeen parte hartzea bultzatuko da, bai eta landa eremuan bizi direnena eta desgaitasun fisiko eta sentoriala duten egileena ere. (20 puntu gehienez).



BIGARREN BERTSIOA LABORATEGIAK ESKAINTZEN DITUEN BALIABIDEAK

- SEI MILA euroko (6.000 €) ekarpen ekonomikoa laborategian parte hartzeko hautatutako proiektu bakoitzari, garapenerako laguntza gisa. Zenbateko hori epaimahaiak aukeratutako sei proiekturi emango die DAMAk (proiektu bakoitzaren egileari emango zaio ekarpen ekonomikoa), eta dagokion zerga ordainketa bete beharko du, indarrean dagoen legediaren arabera. Egilekidetzan egindako lanen kasuan, bi egilekideen artean banatuko da ekarpen ekonomikoa.
- Aholkularien aholkularitza programa: ospe handiko 6 zinemagilek eta ikus-entzunezko sortzailek tutoretzapekoei aholkuak emango dizkiete 6 hilabetez, hilean saio bat edo bi eginez. Saio horiek aurrez aurre edo birtualki egingo dira. DAMAk espazioak eskainiko ditu tutoretzapekoek aholkularitza saioak egin ditzaten.
- Laborategiko koordinazio taldearen etengabeko arreta izango dute parte hartzaileek.
- Programako jardueretan fisikoki edo birtualki parte hartzeko aukera emango die DAMAk tutoretzapekoei.



- Parte hartzaileek beren prestakuntzaren emaitzak aurkeztu ahal izango dizkiete inbertitzaileei eta industriako beste eragile batzuei pitch saio batean.
- DAMAk egokitzat jotzen dituen prestakuntza eta aurkezpenetarako, parte hartzailea ez bada Madrilen bizi eta joan-etorria egin beharra justifikatzen badu, joan-etorri eta ostatu gastuetarako baimena eskatu ahal izango du, eta aldeaz aurretik baimendutako gastuak soilik itzuliko dira.



BIGARREN BERTSIOA LABORATEGIAN PARTE HARTZEN DUTENEN BETEBEHARRAK

Bigarren Bertsioan parte hartzen dutenek honako konpromiso hauek hartuko dituzte:

- 15 egun naturaleko epean jakinaraziko dute, parte hartzeko hautatuak izan direla jakinarazten zaienetik, laborategian parte hartzea erabaki duten edo parte hartzeari uko egingo dioten. Epe horretan erantzuten ez badute, parte hartzeko aukera galduko dute, bai eta ekarpen ekonomikoa jasotzeko eskubidea ere.
- Prestakuntza prozesu osoa egitea eta amaitzea.
- Laborategiaren koordinatzaileek programatutako jarduera guztietara joatea.
- Tutoreekin aurrez hitzartutako bileretara joatea, aurrez aurre edo online.
- Proiektua garatzeko faseak behar bezala betetzeko tutoreak edo tutoreek ezarritako jarduerak egiteko eta lanak aurkezteko egutegia betetzea.
- Instalazioak behar bezala erabiltzea eta esleitu zaizkien aretoak lanerako gune gisa soilik erabiltzea.




- Sinopsia eta haren ondoriozko obrarik beste lehiaketa batera ez aurkeztea programa hau erabat amaitu arte.
- Proiektu irabazleak azkenean ekoizten badira, irabazleek konpromisoa hartu behar dute goiburuko kreditu tituluetan identifikatzeko “DAMA Bigarren Bertsioa Laborategiaren III. Edizioaren” irabazle gisa. Era berean, proiektu irabazleek identifikazio hori sartu beharko dute, hala badagokio, eskubideak lagatzeko egiten diren kontratuetan, lagapen hartzaileek beren gain har dezaten irabazle izaera islatzeko betebeharrak hori. Era berean, sinopsiarekin, ondoriozko obrarekin edo haien edozein elementurekin zerikusia duten ekoizpen kontratuetan edo beste edozein kontratu motatan identifikazio hori jaso beharko da.
- Bestalde, irabazleek baimena ematen diete DAMAri eta hark baimendutako hirugarrenei beren irudia, izen-deiturak eta proiektuarekin eta ibilbide artistikoekin zerikusia duen beste edozein datu erabil ditzaten, programa garatzeko prozesua dokumentatzeko eta programa sustatzeko jardueretarako.
- Irabazleek baimena ematen diote DAMAri laborategiaren etorkizunean sortuko diren obren zatiak partekatzeko, aurrera eramandako laborategi proiektua zabaltzeko eta sustatzeko, ez beste ezertarako. Ahalmen hori fede onez erabiliko da, obraren ohiko ustiapenari kalterik egin gabe, merkatuak trailerrekiko dituen erabileren arabera, eta, beharrezkoa izanez gero, egileekin eta ekoizleekin koordinatuta. Beharrezkoa denean, parte hartzaileak, adierazitako baimen hori azalduko du sortutako obrari dagokionez etorkizunean egiten dituen kontratuetan.



- Parte hartzeko oinarriak edo baldintzetako edozein ez betetzeak, emandako datuetako edozein faltsua izateak, bai eta programa ez amaitzeak ere, dituen eskubideei eta irabazle izateari uko egitea ekarriko luke, eta, hala badagokio, emandako diru kopuru osoa itzuli egin beharko luke.
- Bigarren Bertsioa laborategian parte hartzeko eskaerak berekin dakar oinarriak guztiz onartzea, eta oinarri horien azken interpretazioa erakundeari dagokio. Erakundearen erabakiak eta epaimahaiak hartzen dituenak onartzea ere badakar.
- Ez dira onartuko epez kanpo iristen diren proiektuak edo ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak.
- Epaimahaiaren eztabaidak eta bozketak isilpekoak izango dira. Antolatzaileek egokitzat jotzen dituzten hedabideetan bakarrik argitaratuko dira irabazleen izenak, besteak beste, DAMAren web orrian, sare sozialetan dituen profiletan eta laborategiaren webgunean.
- Antolatzaileek oinarri hauen dokumentu osagarriak argitaratu ahal izango dituzte, argibideak, ñabardurak, zehaztapenak edo zuzenketa materialak eman ahal izateko, baldin eta hemen araututakoaren aurka ez badoaz eta eskuratutako eskubideei dagokienez hirugarrenei kalterik egiten ez badiete. Antolatzaileek aldaketak egin ahal izango dituzte egutegian, behar bezala garatzeko beharrezkoa bada, betiere eragindako pertsonetikiko ahalik eta koordinaziorik handienarekin.
- Bigarren Bertsioa laborategiaren antolatzaileek saririk jaso ez duten sinopsien kopiak ezabatu egingo dituzte laborategiaren edizioa amaitu ondoren.



- Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du baimena ematen dela bidalitako dokumentazio guztia epaimahaiko kideei eta lehiaketa gauzatzearekin zerikusia duten laguntzaile administratibo edo teknikoei helarazteko. Era berean, parte hartzaileek baimena ematen diote DAMAri aurkeztutako dokumentazioa gaztelaniara itzultzeko, epaimahaiak kontuan har ditzan, eta, horren ondoren, aipatutako itzulpen horiek suntsitu egingo dira.
- Parte hartzaileak dira egiletzari eta originaltasunari buruz egiten duten adierazpenaren erantzuleak, eta DAMAk ez du inolako erantzukizunik izango hirugarrenek erreklamaziorik egiten badute.
- DAMAk ez du inolako konpromisorik hartuko proiektuak ekoizteko aukerari begira. Egindako proiektuak hautatutako lehiatzaileen eta, hala badagokio, haien lagapen hartzaileen jabetzakoak izango dira.
- Parte hartzaileek ematen dituzten informazio eta datu pertsonal guztiak konfidentzialak dira, eta ezin izango zaizkie hirugarrenei jakinarazi, ez eta ezarritakoez bestelako helburuetarako erabili ere, indarrean dagoen legerian jasotako salbuespenetan izan ezik.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EU) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta indarrean dagoen gainerako araudia betez, DAMAk jakinarazten du lehiaketan erregistratzeko formularioan eman diren datu pertsonalak lehiaketa horretan parte hartzea kude



LABV.2

LABORATORIO
SEGUNDA
VERSIÓN

>A~A~A